



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

## **2022KO IRAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK**

#### **Alkate-Lehendakaria**

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### **Zinegotziak**

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Oskar Santamaria Pikabea  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko irailaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- 2022KO EKAINAREN 23KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2022ko ekainaren 23ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO UZTAILAREN 18TIK IRAILAREN 23RA (2022/792-2022/956).**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Alkatetzak 2022ko uztailaren 18tik irailaren 23ra bitartean (2022/792-2022/956) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2023KO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA.**

Beñat Larrañagak 2023ko ordenantza fiskalen inguruko testu hau irakurri du:

#### **“2023 urteko Ordenantza Fiskalak**

- Ohi bezala, urte sasoi honetan udal ordenantza fiskalak eztabaidatu eta onartzen ditugu. Dakizuenez, ordenantza horien bidez arautzen ditugu udal zergak, tasak eta prezio publikoak. Udalon diru-sarrereren portzentaje bat horien bidez lortzen da, eta helburua da ahalik eta zerbitzu publikorik hoberena eskaintzea gure herritarrei.
- Legealdiaren azken ikasturtean sartu garen honetan, atzera begira jarri eta errepasso bat egitea gustatuko litzaiguke.
- Lehen urtean, udal-gobernura iritsi berritan eta, zuhurtziaren printzipioa aplikatuta, udal zerga, tasa eta prezio publiko guztiei urte hartako KPIa igotzea erabaki genuen, aurrez zegoena bere horretan utzita.
- 2020ean egin zuen eztanda pandemiak, eta Covidak eragindako eta baldintzatutako testuinguru eta ingurumari ezegonkor, zail eta ziurgabe horretan, 2021ean zergak, tasak eta prezio publikoak izoztea erabaki genuen. Baina aurrez, 2020 urtean zehar, udalak hartutako lehen neurri ekonomikoetako bat izan zen alarma egoerak iraun beste atzeratzea zergen ordainketa, ordainketekin zailtasunak izan zezaketen herritarrei laguntzeko asmoz. Gainera, erabili gabeko zerbitzuengatik zegokion tasa ere ez zitzairen kobratu herritarrei zein tokiko enpresei, hala nola hondakinen eta terrazen tasa.
- Iaz, osasun egoera hobera egiten ari zela aipatzen genuen, baina ondorio sozioekonomikoak berriz, areagotzen ari zirela. Egoera larria bazen, gaur gaurkoz, are eta larriagoa dela esan genezake. Oparotasunaren aroa ere amaitu zaigula iragarri digute.
- Kalera goazen aldiro, ikus eta nabari dezakegu gure poltsikoetan, elektrizitatearen, gasaren edo oinarrizko elikagaien prezioek jasan duten neurrigabeko gorakada. Edonork antzeman dezake bere etxeko ekonomian, eta guk ere, udalaren egunerokotasunean nabaritu dugu. Eraikinetako gas eta elektrizitate fakturretan, erregaiak erosterakoan, obraren bat lizitatzerako garaian edo dena delako konponketetarako materialak erosterakoan. Bestalde, azpimarratzeko modukoa da, Añarbek ematen dizkigun zerbitzuetan, %19ko igoera izateko proposamena egin dutela.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Ukrainako gerraren ondorioz argindarrak eta erregaiek izandako garestitzeak eraginda, KPIak, sekulako igoera izan du (%10). Iaz erreferentzizat hartu genuen azpiko inflazioa bera ere, %6koa da une honetan.
- Tentagarria izan daiteke batzuentzat, igoera handi hori aitzakia gisa erabilita, zerga, tasa eta prezio publikoen igoera handi bat proposatzea, baina ez zaigu iruditzen bidezkoa litzatekeenik, berriz ere herritarrak eta enpresak zamatzea, haiek ere egoera hau pairatzen ari baitira. Beste batzuk akaso, 2021an egin genuen moduan, izoztea proposa dezakete. Baina azaldu dugun moduan, udalaren gastuak ere nabarmen egin dute gora, eta gobernu talde honen ardura ere bada, Usurbilgo Udalak dituen gastuen eta sarreraren arteko oreka ekonomikoa, modu arduratsu batean kudeatzea.
- Horregatik, eta arestian esan dugun moduan, ahalik eta zerbitzu publikorik onena ematen jarraitzeko asmoz zein herritarren egoera aintzat hartuta, irizpide orokor gisa erabaki dugu zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren azpitik oso oso azpitik igotzea, hau da: %1,5.
- Irizpide orokorra hori da, baina badira bi salbuespen:
  - Buruntzaldean adostu zenari jarraiki, kirol zerbitzuetako tasak eta abonak %2 igoko dira.
  - Eta aurreko batzordean hitz egin genuen moduan, iaz adostu genituen tasa eta prezio publikoak, ordenantza fiskaletan jasotzerakoan, arazo tekniko bat tarteko, %1,5eko igoera beharrean %3ko igoera aplikatu zen ur-hornidurako tasa batzuetan. Tarifa finkoan (+10 zent.), kontsumoan (+1 zent. tramo bakoitzean) eta ur sareari lotzeko tasetan (kalibrearen arabera 1€ inguru) hain zuzen. Ondorioz, aurten aplikatu asmo genuen igoera hori, dagoeneko jasota dagoela ulertuz, hiru hauek izoztea proposatzen dugu.
- Baina honekin batera, ez genuke ahaztu nahi, iaz martxan jarri genuen egitasmoa. Izan ere, pertsonak erdigunean kokatu eta kolektibo zaugarriengan begirada jarrita, hobariak jasotzeko eskubideak eta aukerak nabarmen zabaldu zituen Udala Gobernu honek. Ordenantza Fiskalen baitan, hobarien arautegi propio bat sortu genuen eta erreferentzia gisa Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata ezarri genuen. Gaur egun 1.000€tan dago erreferentzia.
- 2022ko lehen 8 hilabeteetan, 150 eskaera inguru jaso eta tramitatu dituzte udal langileek. Espediente horien kudeaketatik, 115 usurbildar izan dira hobariren baten onuradunak eta lanean jarraitzen dugu, herritarrak hobari hauen jakitun izan daitezten. Izan ere, hobariak ez dira egoera oso larrian egon daitezkeen familia edo norbanakoentzako soilik, iaz aurkeztu genituen datuen arabera, herritar askok izan dezaketelako hobariren bat jasotzeko eskubidea.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Tasei dagokionez, zerbitzu bakoitzean kostu eta sarrerei buruzko azterketa ekonomikoa egin dugu. Hona hemen ondorio nagusiak:
  - Ur-hornidura zerbitzuan sarrerak gastu guztien %77,66ra iristen dira. Esan dezakegu, zerbitzu publiko bat eskaintzen ari garen neurrian, portzentaje zentzudun batez hitz egiten ari garela.
  - Estolderia zerbitzuaren kasuan, desoreka, komeniko litzatekeena baina handiagoa bada ere, aipatu beharra dago kuantitatiboki, hiru tasetan eragin ekonomiko txikiena duena dela. Gaur gaurkoz, sarrerak gastu guztien %49,37 iristen dira.
  - Hondakinen kasuan, iaz aipatu genuen desoreka orekatzeko hartu genuen neurri zuzentzaileak (tasaren %10eko igoera) bere fruituak ematen hasi dela dirudi. Paperaren salneurriak ere lagundu du horretan eta hurrengo urteetan, garapena aztertzen jarraitu beharko dugu.”

Alkateak esan du Ogasun batzordean bozkatu zen irizpenetik aldaketa txiki bat dagoela, batzordean aipatu zela dio orokorrean zerga, tasa eta prezio publikoak %1,5 igoko direla, salbuespen batekin, Buruntzaldeko kirol zerbitzuetako prezioak eta abonua %2 igoko zirela.

EH Bildu udal taldeak, ordea, bigarren salbuespen bat egitea proposatzen duela esan du, Beñatek irakurri duen testuan aipatu den bezala ur hornidura zerbitzuaren tarifa finkoa, tarifa aldakorra eta ur-sarera lehen aldiz lotzeko tasa bere horretan izoztea, igoerarik gabe. Horrela, iaz eman zen akats hori zuzendu egingo litzatekeela esan du.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du batzordean aipatu zuten bezala beraien proposamena tasak bere horretan uztea izango litzatekeela. Egoera orain dela bi urte baino larriagoa dela ikusten dute, beraz, bere garaian izoztu egin baziren orain ere beraien proposamena izoztea izango litzatekeela esan du.

Hala ere, alkateak orain aipatu duen bigarren salbuespena proposamenean ez dela agertzen esan du.

Alkateak erantzun dio banatu dena Ogasun batzordean bozkatu zen irizpena dela. Orain, berriz, EH Bildu udal taldeak zuzenketa bat aurkezten diola irizpen horri. Izan ere akats baten ondorioz, iaz %3ko igoera aplikatu zitzaionez ur hornidura zerbitzuaren tarifa finkoari, tarifa aldakorrari eta ur-sarera lehen aldiz lotzeko tasari, aurten igoerarik ez aplikatzea proposatzen dute.

Idazkariak azaldu du batzordetik bertan bozkatu zen irizpena datorrela plenora, baina posible izango litzatekeela dio plenoan emendakin bat aurkeztea irizpen horri. Prozedurari dagokionez, lehenengo emendakina bozkatu beharko litzatekeela dio, eta onartuko balitz, emendakin hori irizpenean txertatuko litzateke eta azkenik irizpena osorik bozkatu.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Josune Urkolak galdetu du ea hori zuzentzeko beste modurik ez al dagoen.

Idazkariak erantzun dio Udalak plenoak onartzen duena aplikatzen duela, plenoak iaz %3a aplikatzea onartu bazuen, Udalak kudeaketatik %3a aplikatzen duela.

Beñat Larrañagak adierazi du kasu honetan akats konkatentazio bat gertatu dela. Egia dela dio plenoak %1,5eko igoera onartu zuela, baina ordenantza fiskaletan ez zela horrela jaso eta ordenantza fiskaletan jasota dagoenaren baitan kobratu dela.

Kontu-hartzaileak adierazi du agian komeni dela argitzea akats txiki horren zergatia edo jatorria, ondorioak eta nola konpondu daitekeen. Iazko irizpideak finkatu zirenean esan zela dio tasak orohar %1,5 igoko zirela, salbuespen batzuekin. Horren arabera, kontu-hartzailetzako zerbitzu teknikoek taula bat prestatu zutela, taula hori plenora ekarri zutela eta taula hori aldizkari ofizialean argitaratu zela esan du, beraz, dagoen akatsa ez dagoela aldizkari ofizialean edo plenoan hartutako erabakian, baizik eta plenoan jada zinegotziek onartu zituzten zenbakiak %3ko igoera zeukatela azpimarratu du. Orduan ez zirela jabetu esan du kontu-hartzaileak.

Josune Urkolak esan du gaurko plenoan 2023rako tasak onartzera doazela eta irizpenean %1,5eko igoera soilik proposatzen dela esan du, ez dagoela beste zenbakirik. Ez dituela begiratu dio aurreko plenoko zenbakiak baina ez al zen horrelako orri bat galdetzen du.

Kontu-hartzaileak erantzun dio diktamenean 1,5a jartzen duela, baina diktamenarekin batera txosten bat etortzen dela, espediente konpleto bat etortzen dela, eta espediente konpleto horretan etortzen direla dio igotzen diren tarifa guztiak. Iaz 200 zenbaki baldin bazeuden, 3tan ezik beste guztietan %1,5eko igoera aplikatu zela eta aipatutako 3 horietan, ez dakite zergatik, %3koa aplikatu zela azaldu du. Plenoak onartu zuena, aldizkari ofizialean argitaratu dena eta herritarrei kobratu zaiena bat datozela esan du, baina ez datorrela bat dio esan zen irizpide orokorrarekin. Hala ere, zenbakiak koinziditu egiten dutela esan du, izan ere iaz %1,5eko igoera egin beharrean %3koa egin zen, aurten %1,5ekoa egin beharko litzateke, beraz, egoera bere horretara joanda geratzen dela esan du. Edozein modutara akats teknikoa izan dela esan du, gizakiak direla, erru bat egon dela eta hori teknikariek onartzen dutela esan du. Hala ere, erru horren neurria hutsaren hurrengoa dela esan du, tarifa batean 6,92ren ordez 10 zentimo gehiago direla, kontsumoko tarifetan 0,48ren ordez 0,49 direla, honek herritarrari eragin dion eragin ekonomikoa txikia dela esan du, eta ez duela inolako kezarik sortu. Arazo juridikorik ere ez dagoela zehaztu du, aldizkari ofizialean tarifa horiek publikatu direlako eta plenoko espedienteetan doazen zenbakietan ere tarifa horiek ageri direlako. Akatsa neurri batean egin zen eta sufritu dute herritarrek urtebetean neurri oso apal



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

batean, baina datorren urteko tarifa berrietatik aurrera normalizatuta eta zuzenduta geratuko liratekeela esan du.

Josune Urkolak galdetu dio kontu-hartzaileari aipatzen duen plenoko espedientea ez diela zinegotziei banatzen.

Idazkariak erantzun dio deialdia egiten den unetik espedienteak idazkaritzan egoten direla edozeinen eskura.

Josune Urkolak adierazi du ez zaiola zilegi iruditzen hemen aipatzea plenoak zenbaki horiek onartu dituela.

Bestetik, akatsa hutsala dela esatea ez zaio horrela denik iruditzen, kasu honetan zenbakiak ez direla oso haundiak dio baina beste tarifa batzuk izan baziren akatsa berbera dela.

Alkateak Josune Urkolari esan dio, batetik, idazkariak aipatu duen bezala deialdi guztietan espedienteak ikusgai egoten direla, beraz, denei dagokiela dauden espedienteak osoki begiratzea. Hori ez zutela egin eta osoko bilkurak onartu dituela ordenantza fiskal batzuk, prezio eta taula batzuk, beraz ardura hemen ere badagoela ez baitira konturatu.

Bestetik, pertsonak direla, denek egin ditzazketela akatsak eta akats bat egon dela, suertez akats horren eragin faktikoa, nahiz eta batzuen poltsikoan oso ezberdin eragin, ez zaie iruditzen izugarritzko eragina izan duenik eta beraiek egin dutena izan da egin duten akatsa onartu. Eragina txikia izanagatik ere subsanatzeko neurriak hartu dituztela azpimarratu du, plenora ekarri eta esan. Ogasun batzordera proposamen batekin joan ziren, ikusi dute zerbait gaizki zegoela, eta egiten dutena da akatsa onartu eta hori zuzentzeko neurri bat proposatu.

Kontu-hartzaileak adierazi du erabiltzen diren definizioak edo kontzeptuak denak direla erlatiboak, berak beharbada esan duela zenbakietan ez dela oso aldaketa nabarmena eta hutsala dela. Hutsalaren kontzeptu hori beharbada norberak era desberdinean ulertu dezakela dio, beraz, esandakoa aldatu eta egokiagoa iruditzen zaiola dio erlatiboa dela esatea eta erlatiboki txikia dela.

Kontu-hartzaileak zehaztu du emendakin honen bitartez ur hornidura zerbitzuaren tarifa finkoa, tarifa aldakorra eta ur-sarera lehen aldiz lotzeko tasa bere horretan izoztea, igoserarik ez aplikatzea proposatzen dela, aipatutako tasak iaz %1,5 igo beharrean %3a igo zirelako.

EAJ udal taldeak horrela eskatuta, 2 minutuko etenaldi bat egin da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Jarraian, EH Bildu udal taldeak proposatutako zuzenketa bozkatu dute eta batzarkideek aho batez onartu dute, beraz, zuzenketa irizpenean txertatu da. Irizpeneko lehenengo puntuko salbuespenetan bigarren salbuespen bat txertatu da, horrela:

“Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, bi salbuespen daude:

- 1) Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonuak %2 igoko dira.
- 2) Ur hornidura zerbitzuaren tarifa finkoa, tarifa aldakorra eta ur-sarera lehen aldiz lotzeko tasa bere horretan izoztuko dira, igoerarik gabe.”

Patxi Suárezek hitza hartu du eta ordenantza osoa bozkatu aurretik adierazi du iaz izoztearen alde zegoela eta aurten baita ere. Badakiela dio udalentsat egungo egoera kudeatzea ez dela erraza, baina zorionez Usurbilgo Udalak baliabide ekonomikoak badituela azpimarratu du. Badirudiela dio funtsa aurreikusitakoa baino handiagoa izango dela eta horrek ere lagunduko duela. Hau guztiagatik bere bozka aurkakoa izango dela adierazi du.

Beñat Larrañagak hitza hartu du eta adierazi du beste behin ere iruditzen zaiola diskurtso erraz eta demagogoa egiten ari direla. Aipatu dutela dio herritarren egoera zaila dela, dudarik gabe, baina udal gobernu honen ardura ere badela Udalaren egoera ekonomikoa bermatzea. Halaber, larrien dauden pertsona eta familientzako hobariak indarrean jarri zituzten iaz eta oker ez badago ez zuten hobari horien alde bozkatu. Proposatzen dituzten tasa eta prezio publiko oinarritzkoenetan hobari hauek jasotzeko aukera dago, beraz, egoera ekonomiko larrian dauden norbanako eta familiei laguntzeko benetako tresna direla hobariak gaineratu du. Hau da, proposatzen duten igoera erabat neutralizatuta eta are gehiago geratzen dela dio hobarien aplikazioarekin.

Demagogiarena aipatzen dutenean, Añarben %19ko igoera nork proposatzen duen galdetzen du Beñatek. Era berean, Buruntzaldean %2ko igoera aplikatuko dutela dio, baina Usurbilek %1,5eko igoera aplikatzea proposatu zuela, eta gogorarazi du Andoainen EAJK eta PSEk gobernatzen dutela, Lasarten baita ere eta Urnietan EAJK. Zehaztu du Lasartek %4,9ko igoera aplikatzea proposatu zuela eta, azkenean, Urnietak proposatutako %2ko igoera aplikatuko dela.

Josune Urkolak esan dio Beñati ahaztu egin zaiola komentatzea Urnietako Udalak bere tasak izoztu egin dituela.

Alkateak azpimarratu du ulertu behar dela izozteak zer dakarren eta hobariak zer dakarren. Iaz udal hobari sistema ez zutela babestu gogorarazi dio. Galdetu dio ea errenta maila altukoei ere tasak izoztu behar al dizkien. Errenta maila bajua duten herritarrek hobariekin ez dutela igoera nabarmenduko zehaztu du. Beti esan izan dutela dio helburua dela herritarrei



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

herri honetako eskaintza publikoa bermatzea. Beraz, errazena dela dio garai hauetan tasak izoztea eskatzea, baina jabetzeko dio izozteak nori egiten dion mesede.

Josune Urkolak adierazi du agian momentua dela udal honek duen diru gerakina herritar guztientzako erabiltzeko.

Patxi Suárezek aipatu du udal guztiek ez dutela egoera berdina, agian Andoainek duen egoera ekonomikoa beste bat dela esan du.

Bestalde, hobariak ondo daudela esan du eta iaz ere gauza bera esan zuela, baina berak uste du aurten ere herriarentzat onuragarria dela tasak izoztea, eta horregatik ez duela demagogiarik egiten azpimarratu du. Hau bere ikuspuntua dela esan du, udal gobernuak berea duela, eta ez du ulertzen zergatik dioten diskurtso demagogikoa erabiltzen ari dela.

Batzarkideek EH Bildu udal taldeak proposatu duen zuzenketa aho batez onartu ondoren, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

“Gobernu taldearen ordezkari gisa, 2023 urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu du Beñat Larrañaga Urdanpilleta alkate-ordeak 2022ko irailaren 20an egindako Ogasun Batzordean.

2022ko irailaren 29ko Udalbatzarrean EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa aho batez onartu ondoren, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

LEHENA: 2023ko Ordenantza Fiskalak hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea.

- Batetik, irizpide orokor gisa **zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren oso azpitik igotzea, hau da %1,5 soilik igotzea**. Kontuan hartu behar da KPIak, aurreko urteekin alderatuz, izugarritzko igoera izan duela azken 12 hilabetetan (%10tik gorakoa), nagusiki, argindarraren edota erregaien garestitzeak eraginda. Ondorioz, ezohiko jokabide edo faktoreen eragina kenduta eta herritarren egoera ekonomiko zaila aintzat hartuta %1,5 igotzea.
- Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, bi **salbuespen** daude:
  1. Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonua %2 igoko dira.
  2. Ur hornidura zerbitzuaren tarifa finkoa, tarifa aldakorra eta ur-sarera lehen aldiz lotzeko tasa bere horretan izoztuko dira, igoerarik gabe.





Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Eta, egoera zailtan inor atzean edo bazterrean utzi gabe, ahalegin berezia egingo da hobariak jasotzeko eskubideak eta aukerak zabaldu eta ezagutu arazteko.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengoz hartu da erabakia.

#### **4.- 2022KO INBERTSIOAK FINANTZATZEKO KUTXABANKEN MAILEGU KONTRATUA.**

Alkateak adierazi du 2022ko aurrekontuak onartu zituztenean aipatu zutela beharrezko ikusten zutela 2022an egin asmo dituzten inbertsioak finantzatzeko mailegu bat eskatzea.

Jarraian, kontu-hartzaileari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Kontu-hartzaileak azaldu du 2022ko inbertsioak finantzatzeko, guztira 1.600.000 euro badira, hortik 600.000 ahorro korrienteekin finantzatzen direla, eta udal aurrekontuetan 1.000.000 euroko mailegu eragiketa aurreikusten dela. Inbertsioak aurrera zihoazen 2022an eta uda garaian esan zutela dio martxan jarri behar zutela milioi euroko mailegu horren tramitazioa.

Ohikoa den bezala eskaintzak eskatu zitzaizkiela esan du Usurbilen kokapena duten hiru finantza erakundeei, eta hirurek aurkeztu dutela beraien eskaintza. Hiru eskaintzak irekitzeko ekitaldi publiko moduko bat egiten zutela zehaztu du, eta bertan egon zirela hiru erakundeak. Hiru horietatik bi eskaintza berdin-berdinak direla esan du, eta hirugarrena zertxobait hobea.

Hiru erakundeei eskatu zitzaieela esan du bi eskaintza egiteko, bat interes tipo finkora eta bestea aldakorrera. Baina hirurek interes aldakorrekoa bakarrik eskaini zutela zehaztu du, argudiatuz momentu honetan merkatuan dagoen inbertidunbrearekin ezin dutela eskaintza finkorik egin. Beraz, hiru eskaintza jaso zituztela esan du, baina hirurak interes tipo aldakorrean. Interes tipo aldakor horrek euriborra duela erreferentzia bezala eta gero horren gaineko marjina eransten zaiola. Hirutatik bitan marjin hori berdina zela, %0,41ekoa, eta batek %0,34koa eskaintzen zuela zehaztu du.

Gainontzeko ezaugarriak berdinak izanik, marjin txikiagoa izateak Udalak interes gutxiago ordaintzea baldin badakar, hori dela egokiena esan du kontu-hartzaileak, eta horrela planteatu zuela Ogasun batzordean.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Kontu-hartzaileak jarraitu du esanez plenoak mailegu kontratuari oniritzia ematen badio, gero Gipuzkoako Foru Aldundiari horren berri eman beharko zaiola, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza. Hala ere, udal honek ez duela baimenik beharko esan du, udalaren egoera ekonomikoa ona delako, baina jakinarazi egin beharko dela.

Patxi Suárezek galdetu du mailegua ze aurrekontuetan dagoen aurreikusia.

Kontu-hartzaileak erantzun dio 2022ko aurrekontuetako sarreretan dagoela aurreikusia, eta orain exekutatzera doazela. Mailegu kontratua sinatzen dutenean eskubide hori aitortuta geratuko dela zehaztu du.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2022 ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko 1.000.000,00 euroko kreditu eragiketa ageri da Udalbatzak onartutako Aurrekontuan. Berau kontratatzearen, hainbat mailegu eskaintza eskatu zitzaien Usurbilgo Udalerrian bulegoak dituzten finantza entitateei.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu zenean, abuztuaren 30ean egindako ekitaldi publikoan jasotako hiru eskaintzak ireki ziren, finantza erakundetako ordezkariak bertan zirelarik. Ondorengo egunetan, jasotako 3 eskaintzen ezaugarriak aztertuz, Mailegu berriari buruzko txostena osatu zuen Kontu-hartzaileak.

Txosten teknikoan ageri denez, *“jasotako 3 eskaintzen ezaugarri gehienak (zenbatekoa, amortizazio epea, gabealdia eta komisioak) berdin berdinak direnez, Euribor erreferentziaren gaineko marjina erabakiorra bihurtu da, horrexek markatuko dituelako Udalak ordaindu beharreko diferentziak datozen 12 urtetan.*

*Euribor erreferentziaren gaineko marjina zenbat eta txikiagoa izan, Udalak ordaindu beharreko interes kuotak txikiagoak izango dira. Aldiz, marjinak handiagoak badira, ordaindu beharreko kuotak ere handiagoak izango dira.*

*Argi dago beraz, Udalarentzat aukerarik onena, margen txikiena eskaintzen duena dela. Eta Kutxabankek eskaintzen duena da margen txikiena (%0,34).”*

Aurreko guztia aintzat hartuz, Ogasun Batzordea osatzen duten kideek, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez erabaki du:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Kutxabank finantza entitatearekin mailegua kontratatzeko proiektua onartzea, ondoko ezaugarriekin:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Espediente mota: Inbertsioak finantzatzea
- Finantza entitatea: Kutxabank
- Zenbatekoa: 1.000.000,00
- Amortizazio epea: 10,00 + gabealdiko epea: 2,00 = guztira 12,00 urte
- Interes tasa: Hiruhileko Euribor + %0,34
- Konputatzeko interes tasa (\*): 2,34
- Ordaintzeko maiztasuna: Hiru hilabetekoa
- Maileguaren helburua: 2022ko Inbertsioak

**BIGARRENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiari horren berri ematea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak 48.5. artikuluan jasotakoaren arabera.

**HIRUGARRENA:** Alkatetzari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez erabaki da.

## **5.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA EGITEKO ESPEDIENTEAREN BARRUAN, HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BERRIKUSIA ONARTZEA.**

Alkateak esan du hirigintza batzordean azaldu zuela zergatik sartzen duten orain herritarrek parte hartzeko programa berrikusia eta hori egiteko arrazoï bakarra dagoela esan du, nagusiki segurtasun juridikoagatik. Jarraitu du esanez, bere garaian, HAPOaren prozesu guztia abiatu zenean, herritarren parte hartzea sustatzeko programa onartu zuela udalak baina badirudiela ez zela aldizkari ofizialean argitaratu eta beharrezkoa dela argitaratzea. Tarte honetan, ordea, legedia aldatu egin dela eta azken dekretuak argitaratu egin behar dela dionez, segurtasun juridikoagatik programa berrikusia tramitatzea erabaki dela esan du.

Josune Urkolak galdetu du bere garaian zergaitik ez zen argitaratu.

Idazkariak argitu du 2014ean programa onartu zenean ez zela derrigorrezkoa aldizkari ofizialean argitaratzea, baina 2020ko dekretuarekin derrigorrezkoa dela argitaratzea. Orain,



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

HAPOaren onarpenarekin hastera doazenez, segurtasunagatik komenigarria ikusi dela dio argitaratzea.

Alkateak erantsi du badela segurtasun juridikoagatik, baina badela egin den lanaren berrespen bat ere.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0153

Usurbilgo Udalak 2014ko maiatzean hasitako Usurbilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesua “Usurbil, oraina da geroa” herritarren parte-hartze prozesuarekin. Orduetik, burutu diren parte-hartzeen kopurua eta prozesu horietan landutako lurralde eremuak hasierako programan jasotakoak baino gehiago izan direnez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren izapidetzearen barruan Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia idatzi da. Honela dio hitzez hitz:

## **AURREKARIAK**

Usurbilgo udalak 2014ko maiatzean Usurbilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesua hasi zuen, 2004-2013 urte bitartean onartutako Arau Subsidiarioak ordezkatzeko asmoz. Prozesua, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legearen 108. artikulua ezarritako Herritarren Parte-hartze Programa idatzi eta bertan jasotako “Usurbil, oraina da geroa” herritarren parte-hartzearekin abiatu zen.

Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesua luzatu egin da, eta 2014 urtean HAPOa idazteko prozesua hasi zenetik egindako parte-hartzeak, hasierako programan zehaztutakoak baino zabalagoak izan direnez, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia idatzi da.

## **ARAU ESPARRUA.**

7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruari eta Birgaitzeari buruzko Legearen testu batekina onartzen duenak, 5.e) artikuluan xeda zen du herritar guztiek eskubidea dutela lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta hirigintza-exekuzioko edozein tresna egiteko eta onartzeko prozeduretan eta horien ingurumen-ebaluazioko prozeduretan benetan parte hartzeko eskubidea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak eginez. Era berean, administrazioak erantzun arazoitua eman beharko die administrazio horren araubide juridikoa eta prozedura arautzen dituen legeriaren arabera.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Bestalde, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 8. artikuluan herritarren partaidetzaren printzipioa arautzen duenez, ezartzen du hirigintza-antolamendua formulatu, izapidetu, onartu eta betearaziko dela, pertsona fisiko edo juridikoek, beren forma guztietan, parte har dezaten bultzatuz eta erraztuz, lege honetan berariaz aurreikusitakoak bermatuz.

Aipatutako 2/2006 Legeak 84.4 artikuluan xedatzen duenez, dagokion hirigintza plana edo tresna formulatzeko erabakian, edo, hala badagokio, hura izapidetzeko eskumena duen administrazioan aurkeztutakoa onartzeko izapidean, beharrezko neurriak eta jarduerak zehaztuko dira administrazio-koordinazioa eta herritarrek parte hartzeko programa sustatzeko plana egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan.

Era berean, 2/2006 Legearen 108. artikulua Plan Orokorren izapidetzean herritarrek parte hartzeko programa arautzen du, eta ezartzen du egiturazko antolamenduko edozein plangintza-figura formulatzen, aldatzen edo berrikusten hasteko udal erabakiarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat egon beharko dela, eta, bertan, udalerraren ezaugarrien arabera, herritarrei eta elkarteei parte hartzeko aukera emateko behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko direla.

Horrez gain, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. Artikulua berariaz arautzen du herritarren parte-hartzea lurraldeeta hirigintza-plangintzaren izapidetzean, eta honako hauek ezartzen ditu:

1. Lurralde-antolamenduko edo egiturazko hirigintza antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, partaidetza- programa bat aurkeztu beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.
2. Herritarrek parte hartzeko programa hori oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean, administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazioaren teknologia berrien bidez zabalduko da, eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek jasoko ditu:
  - a) Partaidetzarako gida bat, non herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak deskribatuko dira. Gida horretan, gainera, parte hartzeko prozesuaren abiapuntu izango diren edukien laburpena jasoko da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko dira ekimenaren edukia eta espedientearen izapidetzearen aurkeztutako alternatiba posibleak.
- c) Dibulgazio-materiala, legez eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharrekoa, errazago zabaldu eta ulertzeko.

## **PARTE HARTZE PROGRAMAREN ARGITALPENAREN JUSTIFIKAZIOA**

2014. urtean, Usurbilgo Arau Subsidiarioak berrikusteko lanak hasi zirenean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan ezarritakoa bete zen, herritarrek parte hartzeko programa bat idatzi baitzen. Baina lege horrek ez zuen ezartzen aldizkarian argitaratu behar zenik.

Berrikuspen-dokumentua idazteko prozesuan, lege berriak onartu dira, herritarren parte-hartzearen garrantzian eta plangintza onartzeko faseetan behar bezala integratzeko jarraitu beharreko prozeduran eragina izan dutenak.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua 2020ko apirilaren 1ean sartu zen indarrean, eta herritarren parte-hartzeko programa Aldizkarian argitaratzeko betebeharra ezarri zen. Ondorioz, arau subsidiarioen berrikuspena 2014an hasi zela kontuan hartuta, legez, ez litzateke nahitaezkoa izango zehaztapen hori betetzea.

Hala ere, Arauen berrikuspen-prozedura denboran luzatu da, eta hasierako herritarren partaidetzarako programan aurreikusitakoak baino jarduketa zabalagoak egin dira, eta, gainera, beharrezkotzat jo da parte hartzeko programa Plan Orokorra behin betiko onartzeko falta diren faseetara egokitzea. Horren guztiaren ondorioz, hasierako partaidetza-programa berrikusi da, Usurbilgo Udalak onartu du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

## **USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA BERRIKUSIA**

### **HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BERRIKUSIA**

Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko prozesuan zehar herritarrek, eragileek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea betetzen dela bermatuko duen komunikazio-esparru bat ezartzeko, Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia idatzi da, herritarren parte-hartzea eta eraikuntza kolektiboaren ikuspegia bultzatu eta prozesuaren fase guztietan eta eskala ezberdinetan txertatzeko helburuz.

Programak honako fase hauek izango ditu:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

## **1.FASEA / DIAGNOSTIKO PARTEKATUA ETA AURRERAKINA (“USURBIL, ORAINA DA GEROA” PARTE-HARTZE PROZESUA)**

### **HELBURUAK:**

#### Orokorra:

- Herritarrek modu integralean udalerriko hirigintza antolamendua aztertzea, Usurbilgo herriak epe ertain eta luzean izan ditzakeen behar estrategikoen inguruan posizionatzea eta lehenestea.

#### Zehatzak:

- Plan Orokorraren diagnostikoa egiteko prozesua herritar guztiei zabaltzea Udaletik.
- Herritarren azterketa eta elkarrizketen ondoren duten posizionamenduekin herritarren diagnostikoa osatzea. Bertan gaur egungo egoera nola ikusten duten eta zer behar dauden eta etorkizunekoak ere zeintzuk izango diren identifikatuko dituzte.
- Diagnostiko horrekin Usurbilgo Plan Orokor berriaren Aurrerakina idazteko osaera teknikoaren oinarriak jartzea.
- Herritarrekin Aurrerakin zirriborroaren lanketa zuzena egitea.

#### Zeharkakoak:

- Herritarren partaidetza aktiboa sustatzea, partaidetza indibiduala zein antolatutako talde eta elkarteena, zabala eta anitza.
- Euskara sustatzea: proiektu eta prozesu hau, beharren arabera, elebiduna izango da, baina euskara lehenetsiko da kudeatzerakoan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea: proiektu eta prozesu honetan genero-ikuspegiarekin egingo da lan eta, ahal den neurrian, emakumeen parte-hartzea bereziki bultzatuko da.

### **PROZESUAREN DESKRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Hirigintzako Plan Orokorraren diagnostikoa eta Aurrerakina osatzeko parte-hartze prozesurako kanpo kontratazioa egingo da eta bi fasetan burutuko da:

#### **1.1. FASEA: DIAGNOSTIKO PARTEKATUA**

Herritarrekin egingo den lan irekirako baldintzak sortuko dira, modu horretan herritarrek beraiek herriaren egoera aztertu eta diagnostikoa modu parte hartzailan egin ahal izateko. Hobetu beharreko egoera eta elementuak identifikatuko dira eta HAPOaren diseinuan kontuan hartu beharreko hainbat irizpide eta ekintza zehaztu.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

#### Diseinua:

- Prozesuaren diseinua eta gidaritza eramango duen talde koordinatzailea osatuko da, Udaleko gobernu taldeko ordezkariekin eta HAPOaren, komunikazioaren eta parte hartzeko arduradunekin.

#### Antolamendua eta komunikazioa:

- Dokumentazioa prestatu: planoak, txostenak, prozesuaren mugak eta logistika (bilera lekuak, orduak etab)
- Komunikaziorako elementuak: aldizkaria, kartelak, triptikoa, webgunea eta herritarrei nahiz elkarteei postaz bidaltzeko gutunak.
- Saioak: herritarrekin hainbat bilera eta, ikastolarekin koordinatuta, ume eta nerabeekin saioak.

#### Herritarrekin saioak:

- Herritarrekin lehen saioak: aurkezpen orokorra HAPOaren elementu orokorrak azaldu eta parte hartze prozesuaren nondik norakoak azaltzeko.
- Lan saioak lurralde eremuka eta gaika antolatuko dira:
  - Hiru lurralde eremu: Zubieta eta Txikierdi; Aginaga, Txokoalde eta San Esteban; Herrigunea eta Santuenea.
  - Gaikako lau talde: mugikortasuna eta ingurumena; ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak; jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza; eta lurralde antolaketa.
- Saio ezberdinetan parte hartu duten pertsonen sortutako informazioa zein Udalak sortutakoa parte-hartzaileei korreo elektronikoz helaraziko zaie.

#### Ikastolako saioak eta gurasoei galdetegiak:

- Adin ezberdineko ikasleekin lau lan saio, adinaren eta generoaren arabera azpitaldeak sortuz subjektu mota desberdinek izan ditzaketen ikuspegiak jaso ahal izateko.
- Ikastolako guraso guztientzat hautazko galdetegia anonimoa egingo da.

#### Lehenengo fasearen itxiera:

- Fase honen balorazioa egingo da, bai herritarrekin eta baita talde koordinatzailearena.
- Fase hau amaitzeko hainbat dokumentu sortuko dira: parte hartzeko prozesuaren txostena, saio ezberdinetan herritarrei emandako informazio guztiaren txosten bateratua eta DIAGNOSTIKO txostena.





## **1.2. FASEA: AURRERAKINA**

### Aurrerakinaren elaborazioa:

- Parte hartze prozesutik ateratako diagnostiko, irizpide eta proposamenekin azterketa egingo da, hainbat aukera jasoko dituen “Aurrerakin zirriborro” dokumentua idazteko.
- Talde koordinatzaileak prozesuaren jarraipena egingo du lau mailatan: maila instituzionalean, teknikoan, parte hartzailekoa eta komunikatiboa.

### Antolamendua eta komunikazioa:

- Dokumentazioa prestatu: aurrerakinaren sintesia, aurkezpena, aukera ezberdinen planoak eta abar.
- Komunikaziorako elementuak: aurrerakinari buruzko aldizkaria, webgunea eta herritarrei nahiz elkarteei postaz bidaltzeko gutunak.
- Saioak: herritarrekin hainbat bilera, aurreko fasean egindakoen araberakoak.

### Herritarrekin saioak:

- 1.1. Faseari jarraipena emanez, herritarrei landutako Aurrerakin zirriborria aurkeztuko zaie eta lanketa zuzena egingo da. Haiekin batera dokumentua aztertu, aurreko faseetan egindako proposamen eta irizpideak nola txertatu diren hausnartu eta posizionatu daitezten.

### Bigarren fasearen itxiera:

- 1.2. Fasearen balorazioa egingo da, bai herritarrekin eta baita talde koordinatzailearena.
- 1.2. Fasea amaitzeko hainbat dokumentu sortuko dira: parte hartzeko prozesuaren txostena, saio ezberdinetan herritarrei emandako informazio guztiaren txosten bateratua, AURRERAKINA eta HAPOaren IRIZPIDE ETA HELBURUAK.
- Aurrerakin eta Irizpide eta Helburuen dokumentuak udaleko web atarian eguneratzea

## **2.FASEA / AUZOETAKO PARTE HARTZE ZEHATZAK**

### **HELBURUAK:**

#### Orokorrak:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Usurbilgo udalerrian dauden auzo ezberdinen errealitate eta beharrak berariaz lantzea, bertako hirigintza antolamendurako helburu eta irizpide nagusiak ezartzeko.
- Usurbilgo kaxko eta auzoen arteko ezberdintasunak ez areagotzea.

#### Zeharkakoak:

- Usurbilgo auzoetako komunitateak indartzea.
- Usurbilgo aniztasuna indartzea.

### **PROZESUAREN DESKTRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Usurbilgo auzo bakoitzaren errealitatearen arabera parte-hartze prozesu espezifikoak zehaztuko dira eta gutxienez Aginaga, Santuenea eta Zubietako auzoetan egingo dira.

#### Aginaga:

- Aginagako herritarrekin egindako parte-hartzean Aginagako beharrak identifikatuko dituen lantaldea osatu, eta haiekin landutako irtenbide posibleak bilera irekian bizilagunei aurkeztea.

#### Zubieta:

- Zubietak dituen berezitasunak kontutan hartuta, berariazko parte-hartze prozesua antolatzea (Guk Zubietan Zer), Zubietako Herri Batzarraren eta Donostiako Udalaren lankidetzaren eta parte-hartzearekin, eta EHUko ikerketa talde batek gauzatu.
- Zentralak diren gai hauen inguruan, mahainguru eta lan saioak antolatzea: ingurumena eta mugikortasuna, ekonomia eta gizartea, etxebizitza eta hirigintza.

#### Santuenea:

- Santuenean herritarrekin batera "Santuenea elkar-lanean auzo plana" lantzea; hau da, auzoa modu integralean ulertzen eta lantzen duen auzo-plana egitea eta auzoak epe ertainean duen etorkizuna herritarren parte hartzean oinarrituta finkatzea eta . Hemendik atetarako ondorioak HAPOan txertatzea.

### **3. FASEA / HASIERAKO ONESPENA**

#### **HELBURUAK:**

- HAPOaren idazteko prozesuan egindako parte hartze ezberdinetan (orokorra zein auzoetako) jasotako herritarren ikuspegia, zein



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

landutako dokumentuetan zehaztutako helburu eta irizpideak kontutan izanda (irizpide juridikoak, ekonomikoak eta abar barne) hasierako onarpeneko dokumentua idaztea.

- Plan Orokorrek marrazten duen herriaren etorkizunera herritarren artean sozializatzea.
- HAPO hasierako onarpenen dokumentuan jasotakoaren itzulketa egitea herritarrei.
- Herritarrei HAPOaren tramitazioaren prozesua azaltzea eta alegazioetarako aukera zabaltzea.

### **PROZESUAREN DESKTRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako onarpeneko dokumentuaren itzulketa eta sozializazioa egiteko kanpo kontratazioa egingo da eta ekintza hauek egingo dira:

#### Antolamendua eta komunikazioa:

- HAPO berriaren dibulgazio dokumentuak prestatzea: hasierako onarpeneko dokumentuaren sintesia, aurkezpenak, planoak, irudiak, eta abar.
- Komunikaziorako elementuak: HAPOaren hasierako onarpena hainbat euskarri eta modutan komunikatuko da, ahalik eta herritar gehienengana iristeko helburuz.
- HAPOaren hasierako onarpen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidea komunikatuko da

#### Herritarrekin saioak:

- HAPO berriaren sozializaziorako herritarrekin saio irekiak egingo dira, lurralde eremuka antolatuta.

#### Erakusketa:

- Informazio panelekin udalerriko erreferentziako espazio batean erakusketa antolatuko da.

#### Aldizkaria:

- HAPOaren hasierako onarpen dokumentuaren informazioarekin aldizkari monografikoa egin eta postaz etxez-etxe banatuko da

## **4. FASEA / BEHIN-BEHINEKO ONESPENA**

### **HELBURUAK:**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- HAPOaren behin-behineko dokumentua herritarrei aurkeztea

#### **EKINTZAK:**

##### Komunikazioa:

- HAPOaren behin behineko onespen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidez komunikatuko da

##### Herritarrei itzulketa:

- Parte-hartzaileei alegazio eta proposamenen itzulketa.

##### Aldizkaria:

- Udal aldizkarian behin behineko onespenaren inguruko informazio zabalduko da.

### **5. FASEA / BEHIN BETIKO ONESPENA**

#### **HELBURUAK:**

- HAPOaren behin betiko dokumentua herritarrei aurkeztea.

#### **EKINTZAK:**

##### Komunikazioa:

- HAPOaren behin betiko onespen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidez komunikatuko da.

##### Aldizkaria:

- Udal aldizkarian behin betiko onespenaren inguruko informazio zabalduko da.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suarezren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko espedientearen barruan, Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia onartzea. Programak honako eduki hau izango du:



## **USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BERRIKUSIA**

### **HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BERRIKUSIA**

Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko prozesuan zehar herritarrek, eragileek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea betetzen dela bermatuko duen komunikazio-esparru bat ezartzeko, Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia idatzi da, herritarren parte-hartzea eta eraikuntza kolektiboaren ikuspegia bultzatu eta prozesuaren fase guztietan eta eskala ezberdinetan txertatzeko helburuz.

Programak honako fase hauek izango ditu:

### **1. FASEA / DIAGNOSTIKO PARTEKATUA ETA AURRERAKINA (“USUR- BIL, ORAINA DA GEROA” PARTE-HARTZE PROZESUA)**

#### **HELBURUAK:**

##### Orokorra:

- Herritarrek modu integralean udalerriko hirigintza antolamendua aztertzea, Usurbilgo herriak epe ertain eta luzean izan ditzakeen behar estrategikoen inguruan posizionatzea eta lehenestea.

##### Zehatzak:

- Plan Orokorraren diagnostikoa egiteko prozesua herritar guztiei zabaltzea Udaletik.
- Herritarren azterketa eta elkarrizketen ondoren duten posizionamenduekin herritarren diagnostikoa osatzea. Bertan gaur egungo egoera nola ikusten duten eta zer behar dauden eta etorkizunekoak ere zeintzuk izango diren identifikatuko dituzte.
- Diagnostiko horrekin Usurbilgo Plan Orokorraren berriaren Aurrerakina idazteko osaera teknikoaren oinarriak jartzea.
- Herritarrekin Aurrerakin zirriborroaren lanketa zuzena egitea.

##### Zeharkakoak:

- Herritarren partaidetza aktiboa sustatzea, partaidetza indibiduala zein antolatutako talde eta elkarteena, zabala eta anitza.
- Euskara sustatzea: proiektu eta prozesu hau, beharren arabera, elebiduna izango da, baina euskara lehenetsiko da kudeatzerakoan.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea: proiektu eta prozesu honetan genero-ikuspegiarekin egingo da lan eta, ahal den neurrian, emakumeen parte-hartzea bereziki bultzatuko da.

## **PROZESUAREN DESKRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Hirigintzako Plan Orokorraren diagnostikoa eta Aurrerakina osatzeko parte-hartze prozesurako kanpo kontratazioa egingo da eta bi fasetan burutuko da:

### **1.1. FASEA: DIAGNOSTIKO PARTEKATUA**

Herritarrekin egingo den lan irekirako baldintzak sortuko dira, modu horretan herritarrek beraiek herriaren egoera aztertu eta diagnostikoa modu parte-hartzailean egin ahal izateko. Hobetu beharreko egoera eta elementuak identifikatuko dira eta HAPOaren diseinuan kontuan hartu beharreko hainbat irizpide eta ekintza zehaztu.

#### Diseinua:

- Prozesuaren diseinua eta gidaritza eramango duen talde koordinatzailea osatuko da, Udaleko gobernu taldeko ordezkariarekin eta HAPOaren, komunikazioaren eta parte-hartzeko arduradunekin.

#### Antolamendua eta komunikazioa:

- Dokumentazioa prestatu: planoak, txostenak, prozesuaren mugak eta logistika (bilera lekuak, orduak etab)
- Komunikaziorako elementuak: aldizkaria, kartelak, triptikoa, webgunea eta herritarrei nahiz elkartei postaz bidaltzeko gutunak.
- Saioak: herritarrekin hainbat bilera eta, ikastolarekin koordinatuta, ume eta nerabeekin saioak.

#### Herritarrekin saioak:

- Herritarrekin lehen saioak: aurkezpen orokorra HAPOaren elementu orokorrak azaldu eta parte-hartze prozesuaren nondik norakoak azaltzeko.
- Lan saioak lurralde eremura eta gaika antolatuko dira:
  - Hiru lurralde eremu: Zubieta eta Txikiardi; Aginaga, Txokoalde eta San Esteban; Herrigunea eta Santuenea.
  - Gaikako lau talde: mugikortasuna eta ingurumena; ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak; jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza; eta lurralde antolaketa.
- Saio ezberdinetan parte-hartu duten pertsonen sortutako informazioa zein Udalak sortutakoa parte-hartzailei korreo elektronikoz helaraziko zaie.



Ikastolako saioak eta gurasoei galdetegiak:

- Adin ezberdineko ikasleekin lau lan saio, adinaren eta generoaren arabera azpitaldeak sortuz subjektu mota desberdinek izan ditzaketen ikuspegiak jaso ahal izateko.
- Ikastolako guraso guztientzat hautazko galdetegia anonimoa egingo da.

Lehenengo fasearen itxiera:

- Fase honen balorazioa egingo da, bai herritarrekin eta baita talde koordinatzailearena.
- Fase hau amaitzeko hainbat dokumentu sortuko dira: parte hartzeko prozesuaren txostena, saio ezberdinetan herritarrei emandako informazio guztiaren txosten bateratua eta DIAGNOSTIKO txostena.

**1.2. FASEA: AURRERAKINA**

Aurrerakinaren elaborazioa:

- Parte hartze prozesutik ateratako diagnostiko, irizpide eta proposamenekin azterketa egingo da, hainbat aukera jasoko dituen "Aurrerakin zirriborro" dokumentua idazteko.
- Talde koordinatzaileak prozesuaren jarraipena egingo du lau mailatan: maila instituzionalean, teknikoan, parte hartzailekoa eta komunikatiboa.

Antolamendua eta komunikazioa:

- Dokumentazioa prestatu: aurrerakinaren sintesia, aurkezpena, aukera ezberdinen planoak eta abar.
- Komunikaziorako elementuak: aurrerakinari buruzko aldizkaria, webgunea eta herritarrei nahiz elkarteei postaz bidaltzeko gutunak.
- Saioak: herritarrekin hainbat bilera, aurreko fasean egindakoen araberakoak.

Herritarrekin saioak:

- 1.1. Faseari jarraipena emanez, herritarrei landutako Aurrerakin zirriborroa aurkeztuko zaie eta lanketa zuzena egingo da. Haiekin batera dokumentua aztertu, aurreko faseetan egindako proposamen eta irizpideak nola txertatu diren hausnartu eta posizionatu daitezten.

Bigarren fasearen itxiera:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

- 1.2. Fasearen balorazioa egingo da, bai herritarrekin eta baita talde koordinatzailearena.
- 1.2. Fasea amaitzeko hainbat dokumentu sortuko dira: parte hartzeko prozesuaren txostena, saio ezberdinetan herritarrei emandako informazio guztiaren txosten bateratua, AURRERAKINA eta HAPOaren IRIZPIDE ETA HELBURUAK.
- Aurrerakin eta Irizpide eta Helburuen dokumentuak udaleko web atarian eguneratzea

## **2. FASEA / AUZOETAKO PARTE HARTZE ZEHATZAK**

### **HELBURUAK:**

#### Orokorrak:

- Usurbilgo udalerrian dauden auzo ezberdinen errealitate eta beharrak berriaz lantzea, bertako hirigintza antolamendurako helburu eta irizpide nagusiak ezartzeko.
- Usurbilgo kaxko eta auzoen arteko ezberdintasunak ez areagotzea.

#### Zeharkakoak:

- Usurbilgo auzoetako komunitateak indartzea.
- Usurbilgo aniztasuna indartzea.

### **PROZESUAREN DESKTRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Usurbilgo auzo bakoitzaren errealitatearen arabera parte-hartze prozesu espezifikoak zehaztuko dira eta gutxienez Aginaga, Santuenea eta Zubietako auzoetan egingo dira.

#### Aginaga:

- Aginagako herritarrekin egindako parte-hartzean Aginagako beharrak identifikatuko dituen lantaldea osatu, eta haiekin landutako irtenbide posibleak bilera irekian bizilagunei aurkeztea.

#### Zubietak:

- Zubietak dituen berezitasunak kontutan hartuta, berriazko parte-hartze prozesua antolatzea (Guk Zubietan Zer), Zubietako Herri Batzarraren eta Donostiako Udalaren lankidetzatza eta parte-hartzearekin, eta EHUKo ikerketa talde batek gauzatua.
- Zentralak diren gai hauen inguruan, mahainguru eta lan saioak antolatzea: ingurumena eta mugikortasuna, ekonomika eta gizartea, etxebizitza eta hirigintza.





### Santuenea:

- Santuenean herritarrekin batera “Santuenea elkar-lanean auzo plana” lantzea; hau da, auzoa modu integralean ulertzen eta lantzen duen auzo-plana egitea eta auzoak epe ertainean duen etorkizuna herritarren parte hartzean oinarrituta finkatzea eta . Hemendik atetarako ondorioak HAPOan txertatzea.

## **3. FASEA / HASIERAKO ONESPENA**

### **HELBURUAK:**

- HAPOaren idazteko prozesuan egindako parte hartze ezberdinetan (orokorra zein auzoetakoa) jasotako herritarren ikuspegia, zein landutako dokumentuetan zehaztutako helburu eta irizpideak kontutan izanda (irizpide juridikoak, ekonomikoak eta abar barne) hasierako onarpeneko dokumentua idaztea.
- Plan Orokorrak marrazten duen herriaren etorkizunera herritarren artean sozializatzea.
- HAPO hasierako onarpenen dokumentuan jasotakoaren itzulketa egitea herritarrei.
- Herritarrei HAPOaren tramitazioaren prozesua azaltzea eta alegazioetarako aukera zabaltzea.

### **PROZESUAREN DESKTRIBAPENA ETA EKINTZAK:**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onarpeneko dokumentuaren itzulketa eta sozializazioa egiteko kanpo kontratazioa egingo da eta ekintza hauek egingo dira:

#### Antolamendua eta komunikazioa:

- HAPO berriaren dibulgazio dokumentuak prestatzea: hasierako onarpeneko dokumentuaren sintesia, aurkezpenak, planoak, irudiak, eta abar.
- Komunikaziorako elementuak: HAPOaren hasierako onarpena hainbat euskarri eta modutan komunikatuko da, ahalik eta herritar gehienengana iristeko helburuz.
- HAPOaren hasierako onspen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidea komunikatuko da

#### Herritarrekin saioak:

- HAPO berriaren sozializaziorako herritarrekin saio irekiak egingo dira, lurralde eremuka antolatuta.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Erakusketa:

- Informazio panelekin udalerriko erreferentziako espazio batean erakusketa antolatuko da.

Aldizkaria:

- HAPOaren hasierako onarpen dokumentuaren informazioarekin aldizkari monografikoa egin eta postaz etxez-etxe banatuko da

#### **4. FASEA / BEHIN-BEHINEKO ONESPENA**

**HELBURUAK:**

- HAPOaren behin-behineko dokumentua herritarrei aurkeztea

**EKINTZAK:**

Komunikazioa:

- HAPOaren behin behineko onespen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidez komunikatuko da

Herritarrei itzulketa:

- Parte-hartzaileei alegazio eta proposamenen itzulketa.

Aldizkaria:

- Udal aldizkarian behin behineko onespenaren inguruko informazio zabalduko da.

#### **5. FASEA / BEHIN BETIKO ONESPENA**

**HELBURUAK:**

- HAPOaren behin betiko dokumentua herritarrei aurkeztea.

**EKINTZAK:**

Komunikazioa:

- HAPOaren behin betiko onespen dokumentua udaleko web atarian eguneratuko da eta sare sozialen bidez komunikatuko da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Aldizkaria:

- Udal aldizkarian behin betiko onespeneren inguruko informazio zabalduko da.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko Herritarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

**6.- CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. ENPRESARI ESLEITURIKO HAASETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO EXEKUZIO OBRA KONTRATUA ALDATZEA OBRA GEHIGARRIAK ETA FUNTSEZKOAK EZ DIREN ALDAKETAK TXERTATZEKO.**

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu, prezio kontrajarriak zein diren azalduz.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: ID.05/2021-0054

2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzekeo espedienteari onespenera eman zion, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz egin zen esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresaren alde eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu, 1.953.312,02 euro (BEZa salbuetsita). Zuinketa akta 2021eko abenduaren 16an sinatu zen.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

2022ko urtarrilaren 14ko 2022/30 Alkatetza Dekretu bidez (gerora Udalbatza Plenoak 2022ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkuran berretsia), Usurbilgo Udalak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obraren kontratua aldatzea onetsi zuen, obra gehigarriak txertatzeko. Kontratu honen hasierako prezioa 1.953.312,02 euro (BEZa salbuetsita) zen eta aldaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa da, hau da, esleipen prezioarekiko aldaketa %2,52koa da. Halaber esleipendunak 2.458,14 eurotan euroan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.

2022ko abuztuaren 22ko 2022-003558 erregistro zenbakidun idatziaren bidez CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresak prezio kontrajarrien txostena aurkeztu du udalak proposaturiko aldaketa batzuen baitan. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa eta zenbateko horrek %1,52ko igoera dakar jatorrizko esleipen prezioarekiko.

Udal arkitektoak eta udal aparejadoreak 2022ko irailaren 7an aldaketa horien inguruko txosten teknikoa osatu dute. Aldaketak honakoak dira: obrak gehitzea (Sektore Publikoko Kontratu Legeko 205.2.a artikulua) eta funtsezkoak ez diren aldaketak (205.2.c artikulua).

Hirigintza saileko teknikariek, Idazkaritzak eta Kontuhartzaitzak txostena osatu dute.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suarezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez erabaki du:

## ERABAKIA

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari esleituriko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratua aldatzea obra gehigarriak eta funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa da, hau da, esleipen prezioarekiko aldaketa %1,52koa da.

**BIGARRENA:** 29.739,41 euroko gastua onartzea, 2021eko aurrekontuko 1-6000-622-152-01-01 kontu-sailaren kontura (D 1641-2022).

**HIRUGARRENA:** Esleipendunak kontratuaren bermea 1.486,97 eurotan handitu behar duela zehaztea, eta horretarako erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun balioduneko epea ematea.

**LAUGARRENA:** Aldaketaren erabakia formalizatu eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzea eta erabaki honen berri Hirigintza eta Kontu-hartzaitza sailei ematea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/29

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez erabaki da.

## **7.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 19:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**